

① ELHEKETA - ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

- ① Elizaburuaren abesteak zer erraiten dauke?
- ② Etxea nola lausungatzen du?
- ③ Eta lauda hori nola azpirtzen du?

II

SORGINAK

XOBADINA.	Ama.
KATTALIN, LUIXA.	Xobadinaren alaba gazteak.
MARIA.	Lehen hitz-untzia.
XANETA.	Bigarren hitz-untzia.
JOANNA.	Auzoko adixkide gazte bat.
BENITA.	Bertze adixkide gazte bat.
JOSEPA.	Bertze adixkide gazte bat.
KATIXA.	Bertze adixkide gazte bat.
MAHUMA.	Lehen sorgina (Kattalin).
INGUMA.	Bigarren sorgina (Luixa).
BERTZE ADIXKIDE ZONBAIT ORAINO.	

LEHEN ZATHIA:

Sukalde batean, Xobadina (Ama), Luixa eta Kattalin (haren bi alabak), artho xuritzen ari dira, hiruak kantuz:

XOBADINA, LUIXA, KATTALIN

1	2
Ikusten duzu goizean,	Nahiz ez den gaztelua,
Argia hasten denean,	Nik maite dut sor lekua,
Menditto baten gainean,	Aiten Aitek hautatua;
Etxe ttikitto aintzin xuri bat,	Etxetik kanpo zaut iduritzen.
Lau haitz ondoren erdian,	Nonbait naizela galdua
(Ithurriño bat aldean,	Zeren han naizen sortua,
Zakur xuri bat athean,	Han utziren dut mundua,
Ni han bizi naiz bakean.	Galtzen ez badut zentzua.

XOBADINAK.—Bai, haurrak, Elissamboure Sarako persulari aiphatuak ederki erran dauku orori zonbat handi egin behar den bere xokoa, sortzen ikusi gaituen etxea. Etxetik urrun, zorionetik urrun! ez da egungo errana. Haurregi zaizte, zuek oraino, bainan ene amari entzun diot, behin baino gehiagotan, eskualdun kanta bat, gutti kantatzen dena, ondikotz, egungo egunçan! Oraiko gazteek aire ergel batzu nahia-go dituzte, eskualdun kanore<sup>2</sup> ttikiena gabeko aire xanfarin batzu... Nere amarena bertzelakoa zen, hitz dautzuet!...

LUIXAK.—Othoi, ama, kanta zaguzu aire zahar pullit hura...

XOBADINAK.—Ez dakit orhoituko naizenez ere sobra, hainbertze urtheren buruan...

KATTALINEK.—Hean, ama, hean?

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Erran dauku 32. Ikusi gaituen  
33. Hitz dauzuet 34. Kanta zaguzu

31. UKAN. Conj. à double complément.

Indic. Présent. Obj. sing. Glt ind. plu.

GURI = à nous.

Zuk daukugu = vous nous l'avez

Harek dauku = il nous l'a

Zuek daukugu = vous nous l'avez

Heiek daukute = ils nous l'ont.

C. Perip. Emaiten daukugu = Us nous le donn

33. ZUERI = à vous.

Nik dauzuet = je vous l'ai

Harek dauzue = il vous l'a

Guk dauzuegu = nous vous l'avons

Heiek dauzute = ils vous l'ont.

Conj. Periphrast. Emaiten dauzuet = je vous le donne

32 UKAN. Conj. transitive à complément direct.

direct: Pronom personnel: GU = nous

Indicatif. Présent. (1)

Zuk gaituzu = vous nous avez

Harek gaitu = il nous a

Zuek gaituzue = vous nous avez

Heiek gaituzte = ils nous ont

Imparfait (1)

Zuk ginduzun = vous nous aviez

Harek ginduen = il nous avait

Zuek ginduzuen = vous nous aviez

Heiek ginduzten = ils nous avaient

(1) Conj. P. Ikusten gaituzu = vous nous voyez (s)  
(2) " " " " " ginduzun = vous nous voyiez (p)